ELoGE
EUROPEAN LABEL OF GOVERNANCE
EXCELLENCE FOR BASQUE MUNICIPALITIES

Andoaingo Udala

Andoain elkarlanean

---

# UDALSAREA 2030 AKORDIOARI ATXIKITZEA

Hirigintza, Obra eta Ingurumen Batzordeak aho batez onartu zuen joan den maiatzean Andoainek bat egitea datozen 4 urteetan jasangarritasunaren aldeko euskal udalerrien sarearen funtzionamendua arautuko duen esparru berriarekin: Udalsarea 2030. Horrela, Andoainek eutsi egin dio 2003an bere lehen Tokiko Agenda 21 prestatzearekin hasi eta 2005ean Udalsarean sartzearekin jarraitu zuen bideari.

Esparru berria euskal erakunde guztiek bereganatu dute, eta EAEko udalerrien sarearen funtzionamendua Garapen Iraunkorrerako Helburuekin lerrokatzea du helburu (GJH). Eta, horregatik, Andoaingo Udalak Eusko Jaurlaritzarekin sinatu du **“Tokiko Ekintza Iraunkorra eta Tokiko 2030 Agenda Euskadin sustatzeko eta Udalsarea 2030 berritzea helburu duen Akordioa”**.

Konpromiso hori berresteko asmoz, joan den astean ekitaldi bat egin zen Donostian UDALSAREA sarearen 25 urteak ospatzeko, Lehendakariaren eta Maider Lainez alkatearen parte-hartzearekin, Andoaingo Udalaren ordezkari gisa.

Ildo horretan, Hirigintza eta Ingurumeneko zinegotzi Jose Luis Verdascok adierazi du GJHekin lerrokatze hori udal konpromiso bat dela, tokiko plangintza eta ekintza bat lortzeko, baina epe luzerako ikuspegi estrategiko batekin, gizartearen eta ekonomiaren funtsezko esparruetan helburu jasangarriekiko ikuspegi eraldatzaile batean eragiten duena. Era berean, adostutako helburuetan oinarritutako udal-kudeaketaren aldeko apustua egin behar da. Helburu horien emaitzak aldizka ebaluatu behar dira, eta herritarren parte-hartzea, gardentasuna, etengabeko hobekuntza eta gizarteari kontuak ematea sustatzen dute.

Atxikitze horrek, lehenengo mugarri gisa, tokiko 2030 Agenda propioa garatzen hasteko betebeharra dakar, andoaindar guztiak eta udal sail eta zerbitzu guztiak inplikatuko dituena, eta, beraz, ezinbestekoa da ahalik eta lankidetza zabalena izatea. Ildo horretan, 2030 Agenda lantzean, aldi berean, herritarren parte-hartzeari buruzko jardunaldiak eta tailerrak egingo dira, zer den ezagutarazteko, garapena bultzatzeko eta Andoaingo beharretara egokitutako edukia emateko.

Andoain, 2022eko irailak 21a

## ADHESIÓN AL ACUERDO UDALSAREA 2030

La comisión de Urbanismo, obras y medio ambiente aprobó por unanimidad el pasado mayo la adhesión de Andoain al nuevo marco que en los próximos 4 años va a regular el funcionamiento de la red de municipios vascos por la sostenibilidad: Udalsarea 2030. De esta manera, Andoain mantiene la senda que inició en 2003 con la elaboración de su primera Agenda Local 21 y continuó en 2005 con la incorporación a Udalsarea.

El nuevo marco, que ha sido asumido por todas las instituciones vascas, busca alinear el funcionamiento de la red de los municipios vascos con los Objetivos de Desarrollo Sostenible, conocidos como ODS. Y, es por ello, que el Ayuntamiento de Andoain ha firmado con Gobierno Vasco el "***Acuerdo para el impulso de la acción local sostenible y la Agenda 2030 local en Euskadi y la renovación de Udalsarea 2030***".

Con el objetivo de ratificar este compromiso, la pasada semana se celebró un acto en Donostia para celebrar los **25 años de la red UDALSAREA** con la participación del Lehendakari y de la alcaldesa, Maider Lainez, en representación del Ayuntamiento de Andoain.

En esta línea, el concejal de Urbanismo y Medio Ambiente Jose Luis Verdasco ha manifestado que "esta alineación con los ODS supone un compromiso municipal por una planificación y acción local, pero con un enfoque estratégico a largo plazo, que incida en una visión transformadora hacia metas sostenibles en ámbitos clave de la sociedad y la economía. Supone también apostar por una gestión municipal centrada en objetivos consensuados cuyos resultados deben ser periódicamente evaluados y que fomentan la participación ciudadana, la transparencia, la mejora continua y la rendición de cuentas a la sociedad".

Esta adhesión conlleva como primer hito a destacar la obligación de empezar a desarrollar nuestra propia Agenda 2030 local, que deberá involucrar a todas y todos los andoaindarras y a todos los departamentos y servicios municipales, por lo que es imprescindible que cuente con la colaboración más amplia posible. En este sentido, la elaboración de la Agenda 2030 desarrollará en paralelo jornadas y talleres de participación ciudadana para dar a conocer qué es, impulsar su desarrollo y darle un contenido adaptado a las necesidades de Andoain.

Andoain, 21 de septiembre de 2022